Arizmendi ikastola | arrasate Herri Eskola | Mesedeetako Andra Maria IKASTETXEA

# 50. alea
# 2007-Abendua

HEZKIDETZAN
Pausoz pauso

Paso a paso
En la COEDUCACIÓN



2. eta 3. zikloak

# ZERTAN OINARRITZEN GARA JOSTAILUAK AUKERATZEKO?

# EN QUÉ NOS FIJAMOS AL ELEGIR NUESTROS JUGUETES?




Noizbait egin dituzue zuen jostailuak? Gustatuko litzaizueke bat egitea? Ale honetan aukera emango dizuegu!

Guztientzako jostailuak dira? ¿Son para cualquiera estos



-Guztientzako egokiak dira aurreko orrialdeko jostailuak? Zergatik? Ba al daude neskentzat edo mutilentzat soilik diren jostailuak? ¿Son para todos y todas los juguetes de la página anterior? ¿Por qué? ¿Hay juguetes para niñas o niños solamente?

-Sailkatu aurreko orrialdeko jostailuak eta bururatzen zaizkizun beste batzuk hurrengo lauki honetan norentzako diren kontuan hartuz. Ordena los juguetes de la página anterior en el siguiente cuadro dependiedo de para quién sean:

| Neska | Mutila | Berdin dio |
|---|---|---|
| | | |

-Zergatik uste duzue hau? Telebistak zerikusia dauka? Zer esaten du telebistak honen inguruan? Telebistan agertzen dena beti egia da? Zertarako daude telebistako iragarkiak? Gu laguntzeko ala zertarako? ¿Por qué creeis esto? ¿La televisión tiene algo que ver? ¿Qué dice la televisión sobre esto? ¿Para qué están los anuncios de la televisión? ¿Para ayudarnos o para qué?



Nire iritzia eraikitzen — Construyendo mi opinión

Jostailu onen bidezko iragarkien aldeko manifestua

## Hau artisten txokoa da! Disfruta



BEHARREZKO MATERIALA: Errotuladoreak edo tenperak, artaziak, birziklatzera botatzen den kartoi bat (20x20), erregela, arkatza, imaginazioa eta gog
MATERIAL NECESARIO: Rotuladores o temperas, tijeras, un cartón para reciclar (2
lápiz, imaginación y ganas.

NOLA EGIN:

1-Irudietan agertzen diren marrak arkatzez eta erregela erabiliz marraztu zure kartoian, ondoren zuk nahi duzun kolorez margoztu dezakezu, astiro-astiro egin ondo gelditu dadin.
2-Ondoren marretatik moztu artaziekin eta gure "tans"-ak edo piezak eginak izango ditugu.
3-"Tans"-ak edo piezak gordetzeko paper batekin kartazal antzeko bat egin dezakegu bazterrak kolatuz. Piezak barruan sartu eta kanpoan TANGRAM idatziko dugu eta marrazki polit bat egin, gure jostailuaren kutxa izango baita hau. Eta...JOLASTERA!

1-Dibujamos en nuestro cartón las líneas que aparecen en los dibujos de abajo con regla, después lo pintamos del color que queramos, despacito para que quede bien.
2-Lo cortamos por las líneas que hemos dibujado y ya tenemos las piezas o "tans" hechas.
3-Hacemos un sobre con un folio pegando las esquinas para guardar las "tans". Fuera del sobre hacemos un dibujo bonito y escribimos TANGRAM. Ya tenemos la caja para nuestro juguete así que a jugar!



TANGRAM-a:Txinatar jatorria duen jolas hau orain dela 4000 urte existitzen da. Jolasaren bidez, geometria, sormena eta pazientzia lantzen da. Jolas polita da baina norberak bere jostailua eraikitzea askoz ere politagoa! Etxean baldin badaukazu bat iadanik, egiten duzuna oraingoan beste norbaiti oparitzeko izan daiteke!



Hementxe dituzue irudi bi piezekin egiteko, ea lortzen dituzuen! Ondoren zuek asmatutako berriak egin ditzakezue! Aquí teneis dos imágenes para hacer con las piezas, a ver si las conseguís! Después podéis inventar nuevas para hacer!

# HELDUEN TXOKOA

*Jostailuak izugarrizko garrantzia dute haurren hezkuntza prozesuan. Jostailua ez da soilik ondo pasatzeko eta entretenitzeko, jostailuak heziketa tresna garrantzitsua dira. Jostailuak jolasaren euskarri bat dira, eta gaitasunen, irudimen eta fantasiaren sustapena, ulermena, inguruarekiko harremana... ahalbidetzen dute. Adinaren arabera jostailu batzuk beste batzuk baino egokiagoak izango dira eta honetan arreta jarri beharko dugu baina inportanteena izango da jostailu bat aurrean dugun bakoitzean hauxe galdetzea gure buruari: Zer bultzatzen du jostailu honek? , Zer ikasten da berarekin? , Munduko ze ikuskera ematen du? , Ze balore bultzatzen ditu?*

*Argi dago jostailu guztiek ez dituztela funtzio berdinak betetzen eta erabiltzen dituztenen araberako garapena izango dutela baita ere. Horregatik neskek jostailu batzuk eta mutilek beste batzuk erabiltzen badituzte txikitatik bi mundu dikotomiko bultzatuko ditugu, non batzuen eta besteen gaitasunak kontrajarriak izatera iritsi daitezke. Honek haurrak mugatzen ditu.*

*Zer ikasi daiteke panpinekin? Zaintzen, espazio txiki batean jolasten, komunikatzen... Hori ona al da? Noski! Orduan zergatik bakarrik neskek ikasi hau? Onak diren gaitasun guztiak guztiontzat! Gaitasun onak bultzatzen dituzten jostailuak guztionatzat! Gure haurren garapen integralaren alde!*

# El rincón de las personas adultas

Los juguetes tienen gran importancia en el proceso educativo de las criaturas. El juguete no es sólo para pasarlo bien y entretenerse, los juguetes son una importante herramienta educativa. Los juguetes son un elemento del juego, y ayudan a desarrollar la imaginación, la fantasía, la comprensión, la relación con el entorno... Dependiendo de la edad unos juguetes serán más adecuados que otros y deberemos poner atención pero más importante será preguntarnos lo siguiente sobre el juguete que tengamos delante: ¿Qué impulsa este juguete? , ¿Qué se aprende con él? , ¿Qué visión del mundo da? , ¿Qué valores impulsa?

Claro está que todos los juguetes no cumplen las mismas funciones y dependiendo de que tipo de juguetes utilicen desarrollarán unas capacidades u otras. Por eso, si las niñas y los niños utilizan desde pequeños juguetes diferentes estaremos impulsando dos mundos dicotómicos, donde las capacidades que desarrollen unas y otros pueden llegar a ser opuestas. Esto limita a nuestras criaturas.

¿Qué puede aprenderse al jugar con muñecas o muñecos? A cuidar, a jugar en un espacio pequeño, a comunicarse... ¿Esto es bueno? Claro! Entonces, ¿porqué sólo van a aprender esto las niñas? ¡Las capacidades que sean positivas para todas y todos! ¡Los juguetes que impulsen valores positivos para todo el mundo! ¡Por el desarrollo integral de nuestras criaturas!

Koordinatzailea:
urtxintxa eskola
Babeslea:
ARRASATEKO UDALA